

56. atala: Bakarka

Disko-jartzailea

56.1.- Esan adierazpen hauek zuzenak (✓) edo okerrak (✗) diren:

1. - Hal-lonek soilik musika klasikoa entzuteko aukera eskaintzen du.
2. - 2056an musika instrumenturik gabe egiten da.
3. - Tasiok ez du musika heavy euskaldunik entzun nahi.
4. - Tasio oso gaztea zenean inork ez zuen DJ izan nahi.
5. - Tasiok dio DJ ez datorrela ingelesetik, euskaratik baizik.
6. - Youtuberen zerrendetan drogazaleak ziren nagusi.



56.2.- Tasiok azaldu duen bezala, *DJ* hitza euskaratik dator, *Disko Jartzailea*, baina ez da hori gure hizkuntzak gaztelaniari egin dion ekarpen bakarra. Ez da erraza, baina ea asmatzen duzun hitz haueetatik zein datorren euskaratik. Eta erraza iruditzen bazaizu, saia zaitez esaten bestiak nondik datozen.

Jarri hitz bakoitzaren ondoren **E** euskara, **G** galegoa, **K** katalana edo **A** aragoiera.



Chatarra
Borracho
Sinsorgo
Faja
Alud
Gabarra
Chepa
Izquierda
Zurdo
Choza
Cartolas
Pota
Pizarra

Tasca
Bacalao
Zacuto
Chirula
Percha
Chuleta
Chistera
Chimbo
Enfadar
Escarola
Zurrón
Cencerro



56. atala: Bakarka

Transkripzioa (03:02)

K- Aizu, Hal-ionek berdin jarraitzen al du?

T- Berdin?

K- Bai, izorratua eta 2016. urtera arteko informazio guztia galdua.

T- Hala zirudik.

K- Orduan musika klasikoa soilik entzuteko aukera dugu.

T- Ez duk behar-beharrezkoa musika jartzea ere.

K- Hau zuretzako jarri dut, Tasio. Musika klasiko hau gustatuko zitzaizula pentsatu dut.

T- Joder! Klasiko oso zaharra. Garai hartako musika bezalakorik ez zegok, e? Iron Maiden.

K- Baina noizkoa da hau? Honek gutxienez musika instrumentuekin egiten zen garaikoa behar du.

T- Jakina, musika musika zen garaietakoa.

K- Beno sermoirik ez bota eh...

T- Aizak, ba al zegok besterik?

K- Begiratuko dut...

T- Ea topatzen duan Judas Priest-en zerbait...

K- Joder.. baina hau gaur egun ez dute ezta elizetan ere jartzen eta.

T- Aizak, begira ezak ea ba ote dagoen heavy talde euskaldunik..

K- Hau adibidez?

T- Mariiiiiiiiiiiii

K- Eskerrak ez zenuela musika jartzerik nahi!

K- Adinagatik esango nuke, zu jende guztiak DJ izan nahi zuen garai hartakoa zarela?

T- Oso gaztea ninduan, baina bai...

K- Esaten dutenez, izurrite baten modukoa zen. Todokristo diseinatzaile eta DJ omen zen..

T- Ba al hekien DJ euskaratik datorrela?

K- Jajajaja Hara beste txantxa bat. Ari zara apurka-apurka soltatzten, e?, Tasio.

T- Ez, egia duk. DJ, Disko Jartzailea.

K- Ahhhh, eta ni bizitza osoan Disc Jockey-tik zetorrela pentsatzen, eta, hara, gaur deskubritu dut euskaldunek asmatu zutela DJ kontu hau ere.

T- Ba, bai. Hala duk.

K- Ze kurioa den bideoak ikustearen kontu hau ezta?

T- Eta arriskutsua, e?

K- Akordatzen garai bateko kontu hura, Youtuberren jonkiena.

T- Ni gaztarooan, ez diat esango engantxatuta negonik, baina bai egiten nizkian ia egun osoko youtube saioak.

K- Bi, nire lagun bat ere egon zen engantxatuta, orduak eta orduak bideo batetik bestera salto eginez.

T- Bai, Youtube droga digitalen zerrendan sartu ziaten arte. Garai eroak bizi izan genizkian.

K- Jarriko al dugu beste bat?

T- Bueno, baina azkena, e? Espuela, benga.

K- Hau adibidez?

T- Eman!

K- Beno, oraingo hau bai, e? Hau azkenekoa...

T- Bena, benga... ez ezak moztu orain rolloa.. klikatu ezak, behingoz.

56. atala: Bakarka

Erantzunak

56.1.-

1. - Hal-ionez musika klasikoa entzuteko aukera soilik eskaintzen du ✓
2. - 2056an musika instrumenturik gabe egiten da ✓
3. - Tasiok ez du musika heavy euskaldunak entzun nahi ✗
4. - Tasio oso gaztea zenean inork ez zuen DJ izan nahi ✗
5. - Tasiok dio DJ ez datorrela ingelesetik, euskaratik baizik ✓
6. - Youtuberaren zerrendetan drogazaleak ziren nagusi ✗

56.2.-

Chatarra **E**

Borracho **C**

Sinsorgo

Faja **A**

Alud **E**

Gabarra **E**

Chepa **A**

Izquierda **E**

Zurdo **E**

Choza **G**

Cartolas **E**

Pota **C**

Pizarra **E**

Tasca **G**

Bacalao **E**

Zacuto **E**

Chirula **E**

Percha **C**

Chuleta **C**

Chistera **E**

Chimbo **E**

Enfadar **G**

Escarola **C**

Zurrón **E**

Cencerro **E**